ZERBITZUEN KONTRATUA
PROZEDURA IREKIA EZ SARA

KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTUKO BAITA HAZI FUNDAZIOARENTZAKO INGURU BIRTUALEKIN LOTUTAKO ZERBITZARIEN ETA LIZENTZIEN HORNIDURA EROSTEKO LIZITAZIO IREKI SINPLIFIKATUA

Sarrera

HAZI Euskadiko sektore publikoko fundazio bat da eta bere jardun-esparruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea du xede eta helburu. Jardun-esparru horrek lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-ingurunea, itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria hartzen ditu. Horien balioa areagotu nahi da xede eta helburu horiek betez, eta natura- eta kultura-ondarea zainduz.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Jarraian daude zehaztuta lote bakoitzean bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak eta materialak. Karatularen Adjudikazio Irizpideen atalean daude zerrendatuta aurkeztutako eskaintzaren azken balorazioan kontuan izateko hobekuntzako alderdi teknikoak, baita aurrez aipatutako lote guztiekin eta bakoitzarekin erabil daitezkeen gainerako irizpide orokorrak ere.

Hornituko diren osagai guztiak merkatuan lider den eta aitortuta dagoen markakoak izango dira eta horien fabrikatzaileek sortaren edo familiaren jarraipena ziurtatuko dute ezarritako entrega-aldietan.

Hornitu beharreko osagai guztiak erabat berriak izan beharko dira, aurrez erabili gabeak eta entregako data aurretik jatorrizko edukiontzietatik atera gabeak. Ez dira onartuko dagoeneko erabilitako edo berregokitutako ekipoak edo ekipoen osagaiak. Paragrafo honetan aipatutako baldintzetako edozein betetzen ez bada, sinatutako hornidura-kontratua berehala etengo da.

Lizitatzaileek dokumentazio tekniko guztia eta eskainitako eredu guztien ezarritako gutxieneko osagaien ezaugarri zehatzak aurkeztu beharko dituzte (prozesatzailea, memoria, diskoa…), baita dagozkien ingurumen-ziurtagiriak ere. Jarraibide hori betetzen ez bada, Hazi Fundazioak berarentzat gordetzen du erasandako loteari buruz aurkeztutako proposamena kanpoan uzteko eskubidea.

Ez da elementuen modelorik onartuko osagai informatikoak egiteko ISO 9001 eta 14001 arauen araberako kalitate-ziurtagiririk ez badu fabrikatzaileak.

Eskainitako osagaiek Batasuneko legedia bete behar dute (90/270/EEE Zuzentaraua), bateragarritasun elektromagnetikoari, erradiazio emisioei eta ingurumenari eta ergonomiari buruzko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak zehazten dituena. Gainera, bat etorri behar dute indarrean dauden araudi teknikoekin (ISO-9241, EN 2941 araua eta UNE-EN 29241 araua edo baliokideak).

Materialek ez dute beruna, kadmioa, merkurioa, kromo hexabalantea, PBB eta PBDE edukiko 2002/96/EE Zuzentarauan eta haren zuzenketetan zehaztutakoaren arabera.

Eskainitako ekipamendu guztiak merkaturatu zenetik bi urte baino gutxiago eramango ditu merkatuan, zaharkitze teknologikoko edozein egoera saihesteko.

Kontratuaren indarraldian elementuren bat birjarri behar bada edo produktu edo modeloren bat berriro eskatu behar bada eta hori zaharkituta edo deskatalogatuta badago edo dagoeneko ez badago, modelo berdin edo goragoko bat Jarriko da haren ordez, agiri honen esleipenetik ondorioztatzen diren produktuen espezifikazio teknikoei eta baldintzei dagokienez.

2. ENTREGA-EPEAK

Kontratatutako materialak entregatzeko gehieneko epeak ezarri dira, erosteko agindua eman eta hurrengo egunetik hasita.

- 1. lotea (Core birtualizazio zerbitzaria): 21 egun.
- 2. lotea (VDI birtualizazio zerbitzaria): 21 egun.
- 3 lotea (VMware lizentziak): 21 egun.

1. LOTEA – Core birtualizazio zerbitzaria

OHARRA: Eskainitako zerbitzariaren hardware guztia eta ondorengo taulan zerrendatutako osagaiak vMware VSphereren 8. bertsioarekin bateragarriak izan behar dira eta hala agertu behar dira vMwarearen bateragarritasun-matrizean. Arreta berezia eskainiko zaie erreferentzia egiten dien marka eta modeloari, prozesadore fisikoari, RAM memoriari eta sareko egokitzaileei dagokienez, eta lizitazio honetatik kanpo geratuko da eskakizun hori betetzen ez duen banako osagai oro.

Kontzeptua	Ezaugarriak	Kopurua
Formatua	Rack	**Ez dagokio**
Rackera lotzeko (*)	Errailak	**2**
Prozesadorea (**)	• Intel Xeon Gold 6426Y 16C/32T 2,5 Ghz. • AMD EPYC 9124 16C/32T 3.0 Ghz.	**2**
RAM memoria	64 GB RDIMM 4800 MT/s Dual Rank	**12**
Disko gogorra (***)	128 GB SSD	**2**
Sareko atakak (Uplinks)	Ethernet 1000/10000 GbE Base-T PCIe.	**12**
Sareko atakak (Uplinks)	Ethernet 100/1000 GbE Base-T PCIe.	**2**
Elikadura-iturria	1400W erauzgarria eta beroan ordezkatu daitekeena	**2**
Kudeaketako softwarea eta urruneko administrazioa	• Urruneko kontsola. • Firmwarearen urruneko eguneratzeak. • Hardwarearen diagnostikoa. • Alertak egitea. • Urruneko administrazioa eta kudeaketa, eragilerik gabe.	**Ez dagokio**
Sistema eragilea	Sistema eragilerik gabe	**Ez dagokio**
Bermea	Fabrikatzaile bakarrak eskaini beharko du, ekipoko pieza guztientzat.	**3 urte**
Berme-mota	NBD lizitazio honetan eskainitako osagai guztientzat eta ON SITE (Hazi Arkauteko dependentzietan)	**Ez dagokio**
Garraioa	Sartuta dago	**Ez dagokio**
Entrega	Hazi Arkauteren dependentzietan (Araba)	**Ez dagokio**

(*) Zerbitzariarekin entregatu beharko dira eta ez dute gastu gehigarririk izango.

(**) Bi modeloetako bat aukeratuko da eta hornituko diren bi unitateak berdinak izango dira.

(***) Errotazioko disko gogorren edo SSD formatukoen ordez, SD formatuko txartelak onartuko dira gutxienez 128 GBko gaitasunarekin, bikoiztuta eskaintzen badira eta horien artean RAID 1 konfigurazioa egin badaiteke.

2. LOTEA – VDI birtualizazio zerbitzaria

OHARRA: Eskainitako zerbitzariaren hardware guztia eta ondorengo taulan zerrendatutako osagaiak vMware VSphereren 8. bertsioarekin bateragarriak izan behar dira eta hala agertu behar dira vMwarearen bateragarritasun-matrizean. Arreta berezia eskainiko zaie erreferentzia egiten dien marka eta modeloari, prozesadore fisikoari, RAM memoriari eta sareko egokitzaileei dagokienez, eta lizitazio honetatik kanpo geratuko da eskakizun hori betetzen ez duen banako osagai oro.

Kontzeptua	Ezaugarriak	Kopurua
Formatua	Rack	**Ez dagokio**
Rackera lotzeko (*)	Errailak	**2**
Prozesadorea (**)	• Intel Xeon Gold 5416S 16C/32T 2 Ghz. • AMD EPYC 7313 16C/32T	**2**
RAM memoria	64 GB RDIMM 4800 MT/s Dual Rank	**8**
Disko gogorra (***)	128 GB SSD	**2**
Sareko atakak (Uplinks)	Ethernet 1000/10000 GbE Base-T PCIe.	**6**
Sareko atakak (Uplinks)	Ethernet 100/1000 GbE Base-T PCIe.	**2**
Elikadura-iturria	1400W erauzgarria eta beroan ordezkatu daitekeena	**2**
Kudeaketako softwarea eta urruneko administrazioa	• Urruneko kontsola. • Firmwarearen urruneko eguneratzeak. • Hardwarearen diagnostikoa. • Alertak egitea. • Urruneko administrazioa eta kudeaketa, eragilerik gabe.	**Ez dagokio**
Sistema eragilea	Sistema eragilerik gabe	**Ez dagokio**
Bermea	Fabrikatzaile bakarrak eskaini beharko du, ekipoko pieza guztientzat.	**3 urte**
Berme-mota	NBD lizitazio honetan eskainitako osagai guztientzat eta ON SITE (Hazi Arkauteko dependentzietan)	**Ez dagokio**
Garraioa	Sartuta dago	**Ez dagokio**
Entrega	Hazi Arkauteren dependentzietan (Araba)	**Ez dagokio**

(*) Zerbitzariarekin entregatu beharko dira eta ez dute gastu gehigarririk izango.

(**) Bi modeloetako bat aukeratuko da eta hornituko diren bi unitateak berdinak izango dira.

(***) Errotazioko disko gogorren edo SSD formatukoen ordez, SD formatuko txartelak onartuko dira gutxienez 128 GBko gaitasunarekin, bikoiztuta eskaintzen badira eta horien artean RAID 1 konfigurazioa egin badaiteke.

3. LOTEA – VMware lizentziak

Lizentzia	Mota	Kopurua
VMware vSphere 8	Enterprise Plus	**12 socket (CPU)**
VMware vCenter Server 8 for vSphere	Foundation	**2 unitate**

Oharra: Aurreikusi vSphere 8 nahiz vCenter Server-en lizentziak bi inguru desberdinetan hedatuko direla, elkarren artean ikuspenik gabe. Hornitzaileak kontuan izan beharko du lizentzien fitxategi bakarra eskaintzea nahikoa den 12 CPUekin edo bi fitxategi beharko diren, 8 eta 4 CPUrekin, hurrenez hurren. Halaber, gauza bera izango da kontuan vCenter Server-en lizentzietarako, fitxategi bakarrekoak izan daitezke 2 vCenter Serverrekin edo 2 fitxategi lizentzia bakarrarekin.